

ZERGA ITUNDUEN BILKETA BIZKAIAN

URRIA 2021

I. ZENBAKI OROKORRAK

a) Zerga-bilketa likidoa guztira

Bizkaian, urriaren 31ra arte, 7.137,3 milioi euro bildu dira zerga itunduen bidez. Zifra horrek 923,8 milioi euro handitu du iazko urrian lortutakoa, hau da, % 14,9ko hazkundea izan da eta 2021eko aurrekontuan aurreikusitako diru-sarrerera guztien, 7.341,6 milioi euro, % 97,2 da.

Nahiz eta, aurreko txostenetan adierazi genuen bezala, emaitzak aztertzerakoan kontuan hartu behar zen bi ekitaldietan ziurtatutako bilketan jasotako zifren homogeneotasunik eza, hain zuzen ere zenbaki horietan COVID-19ak sortutako larrialdi-egoeraren ondorioak arintzeko hartutako neurriek eragin dutelako, efektu horri batu behar zaio zerga-eredu aurkezteko epearen mugaeguna aldatzen duen urriaren 25eko 1778/2021 Foru Aginduaren ondorioz urriko diru-bilketa desitxuratuta dagoela. Horrela, urriaren 25ean amaitzen ziren zerga-betebeharrak urriaren 29ra aldatu ziren eta, beraz, diru-sarrerak azaroan gauzatu ziren, diru-bilketa geroratua 824,0 milioi eurora iritsiz.

Arestian azaldutakoaren ondorioz txosten honetan ez dugu zerga-kontzeptu bakoitzeko diru-bilketaren bilakaeraren ohiko azterketa egingo, nahiz eta aldi horretan aplikatutako diru-bilketaren azken taula sartu den.

URRIAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2021	2020	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	6.898.483,9	6.707.183,0	191.300,9	2,9
FFAAen barneko doikuntza guztira	-1.187.604,6	-922.385,9	-265.218,7	28,8
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	5.710.879,2	5.784.797,1	-73.917,8	-1,3
Gutzizko doikuntza Estatuarekin	602.443,3	428.709,7	173.733,5	40,5
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	6.313.322,5	6.213.506,8	99.815,7	1,6
Diru-bilketa geroratua 1778/2021 FA	824.020,1			
TRIBUTU ITUNDU HOMOGENEOAK, GUZTIRA	7.137.342,6	6.213.506,8	923.835,8	14,9



b) Barruko doikuntzak FFAA

Barne-doikuntzei dagokienez adierazi behar da Bizkaiak 265,2 milioi euro gehiago ordaindu dizkiela beste bi lurraldeei, hau da, % 28,8 gehiago.

BEZarekiko barne-doikuntzak ordainketak nabarmen handitzea ekarri du, % 37,1, eta 730,3 milioi eurotan kokatu da: Araba izan da doikuntza horren hartzaile 197,2 milioitan (% 5,1 igo da) eta Gipuzkoa 533,1 milioitan (% 54,5 igo da).

Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergagatik Bizkaiko Foru Aldundiak 5,1 milioi ordaindu dizkie Araba eta Gipuzkoakoei, aurreko urtean baino % 17,0 gutxiago. Lehen erakundeak 1,0 milioi (% -23,9) jaso ditu, eta bigarrenak 4,1 milioi (% -15,1).

Zerga bereziei dagokienez, Bizkaiak urrira arte 452,2 milioi euro ordaindu ditu barne-doikuntzengatik, % 17,9ko igoerarekin; Arabak 108,2 milioi jaso ditu, % 16,1 gehiago alegia, eta Gipuzkoak 344,0 milioi, % 18,5 gehiago.

c) Doikuntzak Estatuarekin

BEZaren bilketari dagozkion Estatuarekiko doikuntzak % 30,2 igo dira urrira arte, aurreko urtearen aldean, bai inportazioei dagokienez (% 27,6), bai barne-eragiketei dagokienez (% 35,2), nahiz eta azken igoera hori % 15,3an geratuko litzatekeen 2015eko urtarriletik 2021eko ekainera bitartean MOSS BEZaren erregularizazioagatik jasotako 40 milioiak kontuan hartuko ez balira.

Fabrikazioko Zerga Berezien doikuntzen emaitza negatiboa % 2,9 igo da, batez ere Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezian barneko eragiketei dagozkien ordainketak % 4,7 igo direlako eta barruko eragiketei dagokiena gutxiago kobratu delako (-%4,2); horiek partzialki konpentsatu dira 4,7 milioiko gehikuntzarekin Tabako Lanen gaineko Zerga Bereziaren kobrantzetan (% 80,6) eta % 11,3ko gorakadarekin barne eragiketen garagardoaren doikuntzan.



TRIBUTU ITUNDUETAN BILDUTAKOIA. Aurreko ekitaldiarekiko konp.
RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. Comparación ej. anterior

2021

Aldiak: urtarrila-urria
Periodos: enero-octubre

(euroak / euros)

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %EjEc
	2021	2020				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	2.363.711.761	2.484.489.263	-120.777.502	-4,9	2.780.000.000	85,0
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	84.304.429	65.893.892	18.410.537	27,9	68.000.000	124,0
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	33.202.460	38.073.431	-4.870.971	-12,8	41.000.000	81,0
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	26.926.916	21.640.419	5.286.497	24,4	26.000.000	103,6
SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	6.800.944	3.042.250	3.758.694	123,5	25.000.000	27,2
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS	49.509.135	53.066.721	-3.557.586	-6,7	50.000.000	99,0
PFEZ KUOTA DIFERENZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	-137.964.792	-171.918.091	33.953.299	19,7	-45.000.000	*
PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.	2.426.490.853	2.494.287.885	-67.797.031	-2,7	2.945.000.000	82,4
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	84.304.390	65.893.853	18.410.537	27,9	68.000.000	124,0
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	33.202.161	38.073.143	-4.870.982	-12,8	41.000.000	81,0
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	26.926.913	21.640.415	5.286.498	24,4	26.000.000	103,6
SOZIEATEAK KUOTA DIFERENZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	456.893.275	539.745.465	-82.852.190	-15,4	387.000.000	118,1
BALANTZE-EGUNERATZEA / ACTUALIZACIÓN DE BALANCES						
SOZIEATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES	601.326.738	665.352.877	-64.026.138	-9,6	522.000.000	115,2
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO SIRENTA NO RESIDENTES	34.951.267	28.172.969	6.778.299	24,1	18.500.000	188,9
OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES	74.354.682	46.117.469	28.237.213	61,2	60.000.000	123,9
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	80.460.472	80.070.691	389.781	0,5	79.000.000	101,8
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO. S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO	14.782.528	15.381.248	-598.721	-3,9	14.500.000	101,9
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO. S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	9.912.974	10.113.259	-200.285	-2,0	20.266.870	48,9
IRAUNGITAKO ZUZENENKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
BESTELAKO ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS	214.461.923	179.855.636	34.606.287	19,2	192.266.870	111,5
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	3.242.279.515	3.339.496.397	-97.216.882	-2,9	3.659.266.870	88,6
BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	2.282.656.267	2.086.010.079	194.646.188	9,3	1.912.729.860	119,3
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES	-730.345.279	-532.785.918	-197.559.362	-37,1		*
ONDARE ESKUALDAKETEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	66.732.614	50.022.217	16.710.397	33,4	60.000.000	111,2
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS	16.541.575	12.884.872	3.656.703	28,4	18.000.000	91,9
GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	8.649.173	6.354.493	2.294.680	36,1	8.000.000	108,1
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / IMPTO. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	1.614.197	1.273.778	340.419	26,7	1.729.976	93,3
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	56.380	63.730	-7.350	-11,5	130.754	43,1
HIDROKARBURUAK / HIDROCARBUROS						
Bame eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl.Tipo autonómico)	589.479.553	582.911.095	6.568.458	1,1	705.201.583	83,6
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico	-4.146	-65.332	61.187	93,7	65.377	*
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	117.096.737	133.710.823	-16.614.086	-12,4	192.862.150	60,7
GARAGARDOA / CERVEZA	645.221	452.521	192.700	42,6	704.060	91,6
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	22.710.567	22.096.502	614.065	2,8	30.375.160	74,8
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO. S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-40.919	-50.429	9.510	18,9	-120.696	*
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	43.598.857	35.393.504	8.205.353	23,2	42.500.000	102,6
JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	3.178.518	3.519.414	-340.896	-9,7	3.400.000	93,5
BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO. S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	1.142.974	972.053	170.921	17,6	1.000.000	114,3
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	2.423.712.289	2.404.763.202	18.949.087	0,8	2.976.578.224	81,4
JOKO TASAK / TASAS DE JUEGO						
BINGOA / BINGO	762.135	1.792.992	-1.030.858	-57,5	2.000.000	38,1
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	8.508.293	11.272.256	-2.763.962	-24,5	8.000.000	106,4
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	2.128.610	2.622.873	-494.262	-18,8	3.000.000	71,0
JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO	11.399.038	15.688.121	-4.289.082	-27,3	13.000.000	87,7
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECARGOS DE APREMIO	9.877.826	6.107.254	3.770.572	61,7	7.000.000	141,1
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	14.313.455	12.213.525	2.099.929	17,2	16.000.000	89,5
ZEHAPENAK / SANCIONES	9.297.122	6.528.584	2.768.538	42,4	10.000.000	93,0
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	44.887.441	40.537.484	4.349.957	10,7	46.000.000	97,6
ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO	5.710.879.245	5.784.797.084	-73.917.838	-1,3	6.681.845.094	85,5
BEZ: DOIKUNTZAK / AJUSTES IVA						
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES	497.370.852	389.774.178	107.596.674	27,6	547.758.680	90,8
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES	272.238.568	201.425.067	70.813.502	35,2	311.445.970	87,4
BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.	769.609.420	591.199.244	178.410.176	30,2	859.204.650	89,6
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZA / AJUSTE IMPUESTOS ESPECIALES						
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	44.564	49.853	-5.289	-10,6	115.667	38,5
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	21.188.874	22.115.575	-926.702	-4,2	25.094.710	84,4
HIDROKARBUREN GIZ.B.DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	72.147	9.591	62.556	652,3	10.058	717,3
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	-208.527.451	-199.240.099	-9.287.352	-4,7	-244.359.110	*
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO	3.379	175.812	-172.233	-98,1		
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	10.530.779	5.831.740	4.699.039	80,6	9.876.956	106,6
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	41.342	53.022	-11.680	-22,0	145.841	28,3
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	9.480.198	8.515.205	964.994	11,3	9.655.680	98,2
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES	-167.166.169	-162.489.501	-4.676.667	-2,9	-199.460.198	*
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	6.313.322.497	6.213.506.827	99.815.670	1,6	7.341.589.546	86,0

* Garrantzi txiki ratioa / Ratio no significativo

* El valor estimativo de la recaudación de octubre trasladada a noviembre como consecuencia de la Orden Foral 1778/2021, de 25 de octubre, asciende a **824.020.076,46 €**